

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuak 1,8 milioi euroko diru-laguntza emango du nekazaritza-aseguruak izenpetzeko aurten

Izenpetzen dutenei diru-laguntzaren % 75 aurreratuko die poliza formalizatzeko uanean

Martes, 02 de febrero de 2016

Nafarroako Gobernuak 1,8 milioi euro erabiliko du 2016an nekazaritza-aseguruak izenpetzeko laguntzetan, aurtengo aseguru-planari dagozkionak. Alde horretatik, aipatu behar da Foru Gobernuak izenpetzen dutenei diru-laguntzaren % 75 aurreratuko diela poliza formalizatzeko uanean.

Jarraian, jasotako eskaerak ebaluatu ondoren eta dagoen aurrekontuaren arabera, pertsona onuradun bakoitzari dagokion gehieneko diru-laguntza zehaztuko da eta, hala badagokio, gainerako zenbatekoa ordainduko da, diru-laguntzaren % 100 osatu arte. Laguntza horiek Estatuak xede berarekin emandakoak (Aseguruen Estatuako Erakundea-ENESA) osatzen ditu. Europako araudiak adierazten duen moduan, diru-laguntzaren zenbatekoak (Nafarroako Gobernu eta ENESA) ezingo du inolaz ere nekazaritza eta abereen aseguruaren % 65 gainditu, eta ezta % 90 ere hildako animaliak kendu eta suntsitzeko.

Deialdi hori [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) gaur, otsailak 2, argitaratutako ebazpen batean jasotzen da.

Nekazaritza-sektorean diruz lagundu daitezkeen lerroak estaldura gorakorrek dituzten aseguruetarako izango dira, honako ustiapen-mota hauetarako: estalkipeko fruta eta barazkiak, udazken-negu zikloko atari zabaleko baratzak; belarki-laborantza estentsiboak; fruitu lehorrak; kaki eta beste fruta-arbolak (kiwia eta elorri beltza); ardoa egiteko mahatsa; olibondoak; gereziondoak; udaberri-negu zikloko atari zabaleko baratzak; eta ondorengo zikloak. Berrikuntza modura, baratzetako aseguru gorakorren 307, 318 eta 327 lerroetarako, kanpaina honetan laguntza EBak ezarritako gehieneko laguntzaraino handitu da, hots, % 65.

Abereen sektorerako, honako hauek ustiatzeko aseguruak diruz lagunduko dira: hazteko behi-azienda eta hazkuntzako; ardiak eta ahuntzak; plazako behiak; gizentzeko azienda; bazken galera konpentsatzeko; balorazio genetiko handiko behiak; zaldiak; haragitarako hegaztiak; arrautzak jartzeko hegaztiak; hazteko behiak eta txerrien azienda.

Azkenik, ustiapenean (berriztagarria eta berriztagarria ez dena) hildako animaliak suntsizetik sortutako gastuak estaltzeko aseguruak diruz lagunduko dira ere.